

EUSKERA

Anne Etchegoyen Larresoron, kontzertu berezi batean

Prentsa agiria · 2026ko uztailaren 30a, osteguna · 21:00etan · Larresoroko Seminarioko Kapera

Datorren uztailaren 30ean, Anne Etchegoyenek kontzertu hurbil eta berezia eskainiko du Larresoroko Seminarioko Kapera ederrean, bere BIDEAN - "Leku Bereziak" biraren baitan. Abeslariarekin batera izango dira Agnès Imbault pianoan eta Patrice Têtevuide gitarrarekin.

Duela hamabost urte inguru egin zen ezagun Anne Etchegoyen, bereziki Les Voix Basques diskoari esker, 2013an argitaratu eta urrezko disko bihurtu zena. Ondoren etorri ziren Compostelle, Donejakue Bideko bere esperientziak inspiratutako lana, Emazte, emakumeei eskainitako omenaldia, eta azkenik Festa, pandemiaren garaian jaiak eta elkarbizitzak duten garrantzia aldarrikatzeko sortutako diskoa.

Urte hauetan guztietan, ehunka kontzertu eskaini ditu Ipar Euskal Herrian, Hego Euskal Herrian, Frantzia eta Espainian zehar, baita Argentinan eta Estatu Batuetan ere, euskal diasporarekin elkartuz.

2026ko irailean, gainera, KCANTÀ izeneko disko berria plazaratuko du. Hizkuntza erregionalen aldeko proiektu berezi honek korsikar, bretoi, okzitaniar, alsaziar, katalan, galiziar eta euskal artistak bilduko ditu, baita gonbidatu ospetsuak ere, hala nola Francis Cabrel, Cali, Claire Keim, Dan Ar Braz, Xoel López edo Itziar Ituño.

Bere ahots goxo eta indartsuarekin, Anne Etchegoyenek publikoari bidaia musikal eta humano bat proposatzen dio, euskal sustraiak, eragin latinoak, Donejakue Bideko inspirazioa eta kultur aniztasunaren aldeko ikuspegia uztartuz.

Kontzertu bero, hurbil eta parte-hartzailea izango da, emozioz eta irekitasunez betea.

Informazioa

06 32 44 64 25

otentikp64@gmail.com

Erreserbak

Kanboko Turismo Bulegoan eta ohiko salmenta guneeetan.